
Adimen artifiziala, bidelagun?



Unsplash

Gaur egun, adimen artifiziala gero eta presenteago dago gure bizitzetan. Horren harira, EITBko *Biba zuek!* saioan, Unai Martinez de Lizardui elkarrizketatu dute. Hark azalduko digu zer den adimen artifiziala, baita zertarako erabiltzen den ere.

Sekuentzia honetan, hau egin dezakezu:

- **Adimen artifizialari buruzko kontzeptu-mapa bat osatu.**
- **Bideoan esan direnei buruzko galderei erantzun.**
- **Adimen artifiziala zertarako erabiltzen duzuen elkarri kontatu.**
- **Testuaren ideiak lotzeko antolatzaileak identifikatu.**
- **adimen artifiziala laguntza ala mehatxua den idatziz argudiatu**

Ikusi aurretik

1. Zer da “adimen artifiziala”?

TALDEAN

Elkartu hirunaka eta pentsatu hiru ideia edo hitz adimen artifizialari buruz. Zer dakizue? Ondoren, talde handian, osatu kontzeptu-mapa bat arbelean.



Ariketa egin ondoren, komentatu talde handian arbelean idatzitakoak, eta atera ondorioak.

BAKARKA

2. Bideoa ulertzeko hiztegi interesgarria

Ondoko hitzak ondoren ikusiko duzun bideotik atera ditugu. Irakurri arretaz, eta saiatu hitzak definizioekin lotzen.

bitarteko

erronka

eraginkortasun

onura

txertatu

1. ***Nahi edo espero den ondorioa lortzen duenaren ezaugarria.***
2. Zerbaiten barruan beste zerbait sartu edo tartekatu.
3. Zerbait lortzeko baliagarria den gauza, baliabidea.
4. Lortu beharreko helburu edo eginbehar zaila.
5. Norbaitentzat edo zerbaitentzat, gertatzen edo ateratzen den ondorio ona.

Alderatu egindakoa ikaskide batekin. Erantzun zuzenak 8. orrialdean daude.

Ikusi bitartean

BAKARKA

3. Zer da adimen artifiziala, Martinez de Lizarduiren ustez?


Orain, EITBko *Biba zuek!* saioko bideo bat ikusiko duzu. Bertan, adimen artifizialaz hitz egingo dute Unai Martinez de Lizarduirekin, *Skootik* enpresaren sortzailearekin. Ikusi bideoa, eta erantzun hurrengo orriko galderei. Bukatutakoan, alderatu erantzunak ikaskide batekin.



EITB

adimenartifiziala-*Biba zuek!*

1. Martinez de Lizarduiren ustez, adimen artifiziala hiru puntu lotzen dituen teknologia da. Zein puntu?



EITB



2. Adimen artifiziala gure eguneroko bizitzetan txertatuta omen dugu. Zergatik gertatu da salto kualitatibo hori?

_____

_____

3. Dirudienez, adimen artifiziala teknologia zaharra da. Zenbat urte ditu? Noiz edo nola kontsumitu izan dugu orain arte?

_____

_____

4. Zer egin beharko genuke adimen artifizialaren onura guztiontzat izan dadin?

_____

_____

Erantzunak 8. orrialdean daude.

TALDEAN

4. Erabiltzen duzue adimen artifiziala?

Elkartu talde txikietan, eta kontatu elkarri adimen artifiziala erabiltzen duzuen eta zertarako. Beheko galderak erabil ditzakezue gida gisa.



Newtral

Erantzun ondoren, partekatu ondorio nagusiak talde handian.

1. Zer iruditzen zaizue bideoan esaten dena?

2. Erabiltzen duzue adimen artifiziala? Nola? Zertarako?

3. Zertan laguntzen dizue? Ematen duen informazioaz fidatzen zarete?

4. Erabiltzen ez baduzue, zergatik ez duzue erabiltzen?

5. Arriskurik ikusten dizkiozue? Zein?

BAKARKA

5. Testuaren ideiak lotzen

Hemen dituzu bideoko esaldi batzuk. Barneko elementuak eta ideiak antolatzeko, testu-antolatzaileak erabiltzen dira; identifikatu ezagutzen dituzunak.

1. Unai, ***lehenik eta behin***, enpresaren izena ongi esan dugu?
2. Ondoren, algoritmo matematikoak eta estatistikoak aplikatzeko. Hortaz, adimen artifiziala hiru puntu horien nahasketa da.
3. Zeren eta, modu natural batean, adimen artifiziala kontsumitzeko bitarteko bat jarri baitute.
4. Hasteko, teknologia hau zaharra da, baditu 60-70 bat urte, eta badaramatzagu jadanik urte batzuk kontsumitzen; adibidez, helbide elektronikoan mezuak jasotzen ditugunean, eta spam dena eta spam ez dena bereizteko...

Erantzunak 8. orrialdean daude.

TALDEAN

Elkartu ikaskide batekin, eta saiatu ondorioztatzen aurreko ariketako testu-antolatzaileek zer funtzio betetzen dituzten eta zertarako erabiltzen diren.

Lehenik eta behin	*Ordena adierazteko erabiltzen da.*
	_____
	_____
	_____
	_____
	_____

Partekatu erantzunak talde handian. Erantzunak 8. orrialdean daude.

TESTU-ANTOLATZAILEAK

Testu-barneko elementuak eta ideiak antolatzen dituzten hitzak dira.
Haietako batzuek ideiak, esaldiak edo esaldi-multzoak lotzen dituzte; beste batzuek, berriz, testuaren zati jakin baten ondoren zer datorren iragartzeko ere balio dute, ondoren datorren hori nola ulertu behar dugun antzemateko. Azkenik, tarteki moduan ere erabil daitezke, koma artean idatzita.
Ahoz zein idatziz erabil daitezke, eta koherentzia ematen diote testuari.

Mota askotako testu-antolatzaileak daude, testuko ideiak antolatzeko orduan betetzen duten funtzioaren arabera:

- Hasteko, ordenatzeko, amaiera emateko:
lehenik, bigarrenik, ezer baino lehen, azken finean, azkenik, ondoren, batetik...bestetik...
- Gai berarekin jarraitzeko:
gauzak horrela, horrekin jarraituz...
- Azpimarratzeko, indarra egiteko, zehazteko:
alegia, hau da, hots, esan bezala, are gehiago, adibidez, esate baterako...
- Ideien arteko ondorioak eta kausak adierazteko:
hortaz, beraz, horrenbestez, ondorioz, gauzak horrela, hori dela kausa...
- Aipamenak, iritziak emateko
(r)en arabera, (r)en ustez/iritziz, (r)en esanetan, diotenez, antza denez, dirudienez,...
- Ideia berriak txertatzeko:
ez hori bakarrik, bestalde / beste aldetik

BAKARKA

6. Adimen artifiziala, bidelagun?


Eta zuk, zer uste duzu? Adimen artifiziala laguntza ala mehatxua da? Ikusi ondoko albisteak, eta horiek abiapuntu gisa hartuta, idatzi, etxean, iritzi-artikulu bat euskaltegiko blogean argitaratzeko. 200 hitz inguru idatzi behar dituzu, eta argi azaldu zure jarrera; horretarako, testua antolatu eta argudioak eman beharko dituzu.

Adimen artifiziala, bullyinga egiteko tresna berria
Azken urtean, ziberjazarpena gauzatzeko adimen artifizialaren erabilerak nabarmen egin du gora, hainbat ikerketaren arabera. Gelakideren baten argazki, bideo edo audio bat manipulatuz bideo faltsuak sortzeko erabiltzen da AA, eta sare sozialen bidez zabaltzen dira.

Adimen artifizialaren arriskuak

Adimen artifiziala, minbiziaren aurka
Euskadin hasi dira pazienteak adimen artifizialarekin artatzen. Minbiziaren aurkako tratamenduetan probatzen ari dira, tumoreen irudi hobeak lortzeko. Teknologia berri horrek eskaintzen dituen aurrerapenak baliatu nahi ditu Osakidetzak.

Minbiziaren aurkako laguntza



Idazlana irakasleari zuzentzeko eman baino lehen, egin ezazu hurrengo orrialdeko autoebaluazioa, eta saiatu testua hobetzen.

BAKARKA

7. Autoebaluazioa

Testua idatzi ondoren, idatzia hartu eta, taulako irizpideak kontuan hartuta, zeure idazlana ebaluatuko duzu. Ondoren, testua hobetzeko aukera izango duzu.

HELBURUAK	BAI	ERDIZKA	EZ
Iritzia eman dut (jarrera argi adierazi dut)			
Argudioak eman ditut			
Testua antolatu eta lotu dut			
Zein testu-antolatzaile erabili ditut?			

Idazlana bukatu ondoren, eman irakasleari zuzentzeko hurrengo eskola-egunean

ERANTZUNAK

2. Bideoa ulertzeko hiztegi interesgarria

1. eraginkortasun; 2. txertatu; 3. bitarteko; 4. erronka; 5. onura

3. Zer da adimen artifiziala, Martinez de Lizarduiren ustez?

1. Konputagailuen edo ordenagailuen kalkulurako gaitasuna (1), datuen kalitatea (2) eta algoritmo matematikoak eta estatistikoak aplikatzea (3).
2. Erreminta komertziala jarri digutelako esku artean; modu natural batean adimen artifiziala kontsumitzeko bitarteko bat jarri digute.
3. 60-70 urte. Spam dena eta ez dena bereizteko, autoz ibilbide onena markatzeko, osasungintzan...
4. Jendarteratu eztabaida filosofiko-ekonomiko-soziala, mugak jartzeko eta guztion onerako erabiltzeko.

5. Testuaren ideiak lotzen

- 1- lehenik eta behin; 2- ondoren, hortaz; 3- zeren eta... bait-; 4- hasteko, adibidez;
- lehenik eta behin: ordena
  ondoren: ordena
  hortaz: ondorioa
  zeren eta... bait-: arrazoitu
  hasteko: ordena
  adibidez: adibideak, zehaztasunak

HIZTEGI LAGUNGARRIA

Enpresei eraginkortasuna eskaini. Lana azkarrago eta errentagarriago egiteko baliabideak eskaini.

Jendartea. Gizartea.

Oztopo izan. Zerbait egiteko eragozpena izan, traba.

Lanean dihardute. Lanean ari dira. *Jardun* aditz trinkoa.

Denoi datorkigu hitz bat burura. Denoi etortzen zaigu hitz bat burura. *Etorri* aditz trinkoa, nor-nori.

Inpaktua biderkatu. Eragina oso-oso nabarmen handitu.

TRANSKRIPZIOA

Maddalen Arzallus: Unaik, adimen artifizialaren bidez, enpresei eta erakundeei eraginkortasuna eskaintzeko helburua duen Skootik izeneko enpresa sortu zuen. Bere esanetan, adimen artifizialak ez ditu gizakiak ordezkatzen, laguntzen ditu. Gurekin da Unai Martinez de Lizardui.
Kaixo, Unai.
Xabier Sukia: Arratsalde on, Unai.
Unai Martinez de Lizardui: Arratsalde on.
Xabier Sukia: Ongi etorri.
Unai Martinez de Lizardui: Bai, mila esker.
Maddalen Arzallus: Unai, lehenik eta behin, enpresaren izena ongi esan dugu? Skutik edo Skootik?
Unai Martinez de Lizardui: Skootik. Eskutik helduta, nahiz eta deletreatuta (letreiatuta) beste gauza bat dirudien, euskal zera, euskal hitz bat da.
Xabier Sukia: Hitz-joko polita.
Maddalen Arzallus: Skootik.
Maddalen Arzallus: Unai, zer da zuretzat adimen artifiziala?
Unai Martinez de Lizardui: Uau! Galdera zaila, ezta? Bueno, saiatuko naiz alor teknikotik esplikatzen, igual jendarteari gehiago hurbiltzeko teknologia hau. Ez da horrenbeste niretzako (nire ustez) zer den, baizik eta nola funtzionatzen duen, ez? Niretzako, adimen artifiziala hiru puntu lotzen dituen teknologia bat da. Alde batetik, konputagailuen edo ordenagailuen kalkulurako gaitasuna. Gaur egun oso konputagailu potenteak daude, potentzia handikoak eta kalkulu oso azkarrak egiteko gai dira. Eta hori duela gutxi arte oztopo bat zen, baina gaur egun gainditu da. 2. puntua da datuen kalitatea, ze adimen artifizialak bere lana ondo egin dezan, datuen gainean entrenatu beharra dago, eta datu hauek kalitatezkoak izan behar dira (dute). Eta enpresak (enpresek) lanean dihardute, nolabait ere, datuei, hori, behar zaien aberastasun hori ematerako bidean dabiltza. Ondoren, eta 3. puntura nihoa (noa), algoritmo matematikoak eta estatistikoak aplikatzeko. Hortaz, adimen artifiziala, nolabait ere, hiru puntu hauen nahasketa bat da, eta horiek ondo nahastuta eta ondo aberastuta, adimen artifizialak bere emaitzak ematen ditu.
Xabier Sukia: Egia da gero eta presenteago edo azken bolada edo urteotan behintzat, oso-oso izen ezaguna zaigu, kontzeptu ezaguna zaigu. Nola txertatu beharko genuke, zure ustez, adimen artifiziala gure eguneroko bizitzetan?

Unai Martinez de Lizardui: Bueno, txertatuta daukagu, ez? Zorionerako edo zoritxarrerako, txertatuta daukagu, ez? Zergatik eman den orain salto kualitatibo hau? Hombre (Tira), denoi datorkigu hitz bat burura. Erreminta... esku artean jarri diguten erreminta komertzial baten bidez, nolabait ere, makinekin edo konputagailuekin modu natural batean hitz egiteko, dialogatzeko (elkarrizketan aritzeko), gaitasuna gure eskuetan jarri dute. Eta hor salto oso handia izan da, zeren eta, azkenean, jendartean, modu natural batean adimen artifiziala kontsumitzeko bitarteko bat jarri dute. Hori izan da pixka bat egun batetik bestera, benetan erronka inportante bat, eta biderkatu duena teknologia honen inpaktua. Baina horrek ez du esan nahi adimen artifiziala gaurko gauza bat denik. Hasteko, teknologia hau zaharra da, kakotxen artean, baditu 60-70 bat urte, eta badaramagu jadanik urte batzuk kontsumitzen; adibidez, helbide elektronikoan mezuak jasotzen ditugunean, eta spam dena eta spam ez dena bereizteko...
Maddalen Arzallus: Berak erabakitzen du, ezta?, azken finean.
Unai Martinez de Lizardui: ... hor adimen artifizial bat dago, sinpleagoa, baina adimen artifizial bat dago; adibidez, kotxez gidatzen goazenean, eta erruta (ibilbide) optimoa markatzen digunean, zera, erreminta teknologikoak, hor adimen artifiziala badago; osasungintzan, gaur egun, gaixotasun batzuk aurrez identifikatzeko adimen artifiziala aplikatzen ari da. Bueno, kasuak dozenaka daude mahai gainean, eta garbi dago kasu batzuetan onuraduna dena, adibidez, osasungintzaren kasuan eta beste kasu batzuetan, ba, nik uste dut hor eztabaida filosofiko-ekonomiko-sozial bat egin beharko genukeela jendarteratu, nolabait ere, mahai gainean, teknologian ere bai, muga batzuk jartzeko eta ikusteko nola erabili guztion onura... onerako izan dadin.